HERNANIKO kronika

2018ko abuztuaren 27a, astelehena ::: 6.024 zk. ::: www.kronika.eus

Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkartea **Lan-taldea:** A. Arbelaitz, I. Goñi, L. Goñi, B. Los Arcos, A. Moreno, J. Osa, M. Ramirez de Alda, L. Rekondo eta J. Zubitur. **Egoitza:** Larramendi 11, Hernani ☎ 943 33 08 99 - 688 660 714
Eposta: *kronika@kronika.eus* eta *publi@kronika.eus* **Lege gordailua:** SS-679/2000. **ISSN** 1576-8422.

Argitaratzailea **Laguntzaileak**

I TAXIAK: 943 550093 **I UDALTZAINGOA:** 943 248900 **I DYA:** 943 464622 **I AUTOBUSAK: Garayar:** 943 556658, **Areizaga:** 943 452708, **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **I ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 **I JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 ✚ ***/ Egunez:*** **Castilla** Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941** ***/ Gauez:*** **Castilla** Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941**

EGURALDIA

GAUR Udako eguraldiari eutsiko dio gaur ere. Eguzkia nagusituko da, eta beroa egingo du. Tenperaturak goranzko joerarekin jarraituko du.
Min.16º / Max.26º

BIHAR Hegoaldeko haizearen eraginez, bero haundia egingo du. Arratsaldean, aldiz, aldatzera egingo du; bero-laino-ak garatuko dira eta ekaitzak joko du.
Min.19º / Max.32º

(euskalmet)

ERGOBIAKO JAIAK

Ederki pasa zuten haurrek Txantxariak-ekin; helduek, aldiz, sagardo eguna izan zuten gozagarri.

Ergobiako zubiaren 500 urteak gogoan, azkeneko egunean

Idi-demen sari nagusia egingo dute aurretik, goiz eta arratsaldez.

IRITSI da azkeneko eguna; gaur agurtuko dituzte ergobiarrek auzoko festak. Omenaldi berezi batekin egingo dute aurtengoan; 500 urte bete ditu Ergobiako zubiak, eta garai batean izandako garrantzia ekarriko dute gogora, jaien bukaeran. Aurretik, idi-demen sari nagusia jokatuko da.

Atzokoan, aldiz, sagardoen saria jaso zuten hiru sagardotegik: Alorrenea izan zen garaile; Irigoien eta Oialume Zar izan ziren bigarren eta hirugarren, hurrenez hurren.

GAURKO EGITARAUA

Idi-demen eguna
12:00, Tximela S.A.k babestuta idi-demen Ergobia LIV Sari Nagusia. Lehenengo txanda honetan hiru partehartzaile arituko dira.
Aurtengo gonbidatuak izango dira: Telleria, Hernanikoa; Artola, Oiartzungoa; Arzadun, Aiakoa; Olazar, Lezokoa; Oliden, Oriokoa.
14:30, Denok karpa azpira bazkari ofizialaz gozatzera, Bixente soinu-jolea lagun dugula. Honako hau izango da menu: fritoak, Iberiko sorta, zapoa plantxan eta azpizuna entsaladarekin.
18:00, Idi-proben bigarren txanda jarraian. Beste bi partehartzaileak jarriko ditugu lanean. Ondoren, sari banaketa egingo dugu.
19:30, Laiotz taldea.
23:00, Zezen suzkoa su artifizialak Ergobiko zubiaren eraikin historiko honen 500 urteak ospatzeko.
Ondoren, Laiotz jaien amaierara arte.

FUTBOL 7 TXAPELKETA

Atsegindegin egin zuten sari-banaketa, bazkaritan.

Edizio arrakastatsuena, aurtengoa

Larunbatean jokatu zuten dispertsioaren kontrako Futbol 7 Txapelketa; inoiz izan den arrakastatsuena izan da. 16 talde aritu ziren elkarren aurka, eta 180 lagunen bueltan elkartu ziren gero Atsegindegin bazkaritarako. Bertan egin zuten sari-banaketa, eta Suge Gorriak taldeak eskuratu zuen kopa.

ARTIKUTZA

Egun osoko festa, biharkoa

San Agustin eguna da bihar, eta urtero bezala, Artikutzan izango da festa haundia. Urte osoan zehar bisitatzeko aukera badagoen arren, bihar baimen-eskaerarik egin gabe joan ahal izango da. Urtegiaren bueltan, gainera, egun osoko festa izaten da. Goizeko 08:00etan irekiko dituzte ateak, eta orduan, jan-edanak jarriko dituzte. Eta ordutik aurrera jarraituko dute egitaraua: 11:00etan, meza izango da; 11:30etan, pelota partiduak; 17:30etan, herri kirol erakustaldia; eta 19:30etan, dantzaldia.

PORTUKO JAIAK

Sagardo probaketarekin gozatu ondoren, herri kirol desafioan izan zen jende mordoa.

Aurtengoek hegan egin dute; hurrengo urtera arte!

Sagardo tragoxkekin frexkatzeko aukera izan zuten atzo Portu auzora gerturatu zirenek, baita pintxo batzuekin bapo geratzekoa ere. Zapore are goxoagoa izaten du, gainera, Portuko probaketak, Juneren Hegoak elkarteari emango baitiete jasotako dirua, haien hegoak astindu eta familiei laguntzen jarraitu dezan. Herri kirol desafioak berotu zuen giroa arratsaldean, lehia bizia izan baitzen bertan! Laiotzek dantzarazi zuen auzoa beranduago, eta beraiekin bukatu zen festa, aurreko egunean baino goizago.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

IV. URTEURRENA

Antonio Gomez Gomez

'EL PANA'

2014ko abuztuaren 27an hil zen, 59 urterekin

-Goian Bego-

Maite zaitugu

ETXEKOAK

Hernanin, 2018ko abuztuaren 27an

IRAGARKI MERKEAK

Goizetan zaintza lanetan aritzeko emakume euskaldun baten bila gabiltza. **Deitu: 646 773 528**

Hernaniko mutil gazteak erreformatzeko pisua erosiko luke, Hernanin bertan edota inguruan. **Deitu: 651 936 546**

Funtzionamenduan dagoen okindegi/kafetegi bat traspasatzen da Hernanin, informazio gehiagorako: **658 737 096**

Emakume arduratsua behar da interna moduan lan egiteko, etxeko lanetan eta adineko pertsona bat zaintzen. **Deitu: 630 585 959**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**